



Beste iturrietatik

Barne-ikerketa*

Tim Murphey

Ekitaldiren bateko partaideei irakasle on bat gogoratzeko eskatzen diegunean, “barne-ikerketa” egiteko eskatzen ari gatzazkie, dagoeneko baduten informazioa bilatu eta kontzienteki hausnartzeko. Dakitena nolabaiteko input bihurtzen zaie, testuinguru berri batean erabiltzen baitute. Daukaten kezkaren bati buruz gogoeta egiteko erabiltzen da dakitena, adibidez, “Nolako irakaslea izan nahi dut nik?”. Barne-ikerketa, izan ere, “erantzunak” eta “fomulak” ematearen kontrako jokabidea da, eta jadanik ezagutzen duguna ikustera eramaten gaitu. Horrela, ezaguna dugun horretan txertatzen da informazio berri oro. Barne-ikerketa irakastresnatzat erabiltzeak askoz motibagarriago bihurtzen du edozein gai, zeren eta gaiari buruz partaide guztiek duten esperientziaz baliatzen eta berau gaitzat erabiltzen ari baikara. Ondorioz, beren esperientzia, iritziak eta sentipenak errespetatu egiten direla iruditzen zaie, eta irekiago egoten dira besteenak ere kontuan hartzeko. Prozesua ez da berria. Ikaslearengan ardazturiko irakasleek mendeak daramatzate hau egiten, nahiz eta susmoa dudan horrelako irakasleak ez direla ugari izan.

Gaur egun barne-ikerketa asko erabiltzen dut “interakzio”ari buruzko irakasleen tailer batean. Hasteko, beren klaseetan nahi duten elkarreragin edo interakzio kualitatiko hori lortzeko bide ugarietara buruz ideia jaso edo brain-storming egiteko eskatzen diet partaideei. Ohartu ideia jaso barne-ikerketaren era bereziki irekia dela, ez baita beharrezkoa partaideek aurrez zerbait zuzen-zuzenean esperimendatua izatea (“posibilitateak” mugatzen dituen gauza); nahikoa da zerbaiti buruz entzun edo irakurri izana, edo beren ideia jaso zertzean sorturiko neurona-konexioen kopuru zenbatezin horretatik, besterik gabe, posibilitateak sortzea. Ondoren, interakzio-mota hauei buruz irakasle nahiz ikasleek eduki ditzaketen kexa guztien zerrenda egiteko eskatzen diet. Bi ideia jaso hauetako zerrendak lehenik bikoteka edo talde txikitara egiten dituzte, eta gero bildu eta zerrenda orijinaletan makinaz idazten dira.



BARNE-IKERKETA

Jakina, partaideek beren barne-ikerketazko ezagutza besteekin trukutzen dutenean, edozein talde-gidarik eman dezakeen baino askoz input gehiago ari dira ekoizten. Halaber, barne-ikerketazko input hori maila berekoen artean ematen da, eta hor ez da derrigorrez ezer “egiatzat hartzen agintea duenak esan duelako”; horrela, eztabaidatu egin daiteke eta probatu, ez besterik gabe onartu. Talde-gidariek ere onura ateratzen dute barne-ikerketazko input honetatik, eta beren pertzepzioak egoki ditzakete. Beste abantaila bat zera da: barne-ikerketazko material hau (zerrendak) input egokitza erabil daitekeela ondorengo klaseetan ere. Honek lana aurreratzen dio gidari/trebatzaile/irakasleari, eta ez du eramaten partaideek jadanik zer ote dakiten eta puntu batean zer jakin behar ote duten “asmatzeko” lan etsigarriara. Jadanik hor dagoenarekin lan egiten da, eta material horixe izango da taldeari aurrerarazteko erabiltzen dena. Programaketa Neuro-Linguistikoan edo PNL terminotan, horixe esan nahi du barne-ikerketak: jadanik hor dagoena isladatuz eta errespetatuz elkar ulertzea, eta gero norabide berrietatik eramatea.

Azkenik, niretzat barne-ikerketa osagai nagusia da ongi motibaturiko interakzio kualitatibo orotan, bertan dauden baliabide guztiak erabil-

tzen baititu ekologikoki: partaideak eta hauek dakiten eta esperimentatu duten guztia. Trebatzen ari diren irakasleekin hau egitean, "Tessa Loop"a (ikus Bibliog. 1) argi eta garbia da: espero dut, edozein hizkuntz ikastarotan, beren ikasleak bihurtuko dituztela elementu nagusi, eta ez "hizkuntza", testuliburua edo syllabusa. Rivers-ek ongi esan zuen: "Hizkuntz irakasle garen aldetik zorte handienekoak gara irakasle guztien artean, gai guztiak baitagozkigu. Haurrek komunikatu nahi duten edozein gai, beraiek irakurri nahi duten edozein gai, gure gaiak dira" (ikus Bibliog. 2). Nik esaten dut "edozein gai" horietako gehiena jadanik pertsona bakoitzaren barruan dagoela eta erraz irtenarazten dugula barne-ikerketazko estrategiekin. Beste era batera esanda: "Ikastea, jadanik dakizuna aurkitzea da. Egitea, badakizula frogatzea da. Irakastea, zuk bezalaxe beraiek ere badakitela beste batzuei gogoraraztea da. Denok zarete ikasle, egile, irakasle". Richard Bach (ikus Bibliog. 3).

Irakasle-trebakuntzan egiten dugun gauza asko eraginkortasun handiagoz egin daitekeela uste dut barne-ikerketa bidez, informazioa norberak aurkituz; gero zuzendu, egokitu edo/eta exorzizatu egin daiteke. Horrelako aurkikuntzarik gabe inputa ematera, interakziorako aukera eder bat galtzeko arriskua dago, ikaskuntza/aldaketa eragiteko gaitasun handia duen aukera bat.

Gogoeta hau egiten ari naizen bitartean ere zalantza dut inork irakats ote dezakeen "barne-ikerketa"ren bidez bakarrik, batez ere partaideek input-moduaren bidez hainbeste "ikasi" bide dutenean. Eta baliteke batzuetan nolabaiteko inputa beharrezko izatea barne-ikerketarako marko bat sortu ahal izateko.

John Morgan-ek, artikulua honen zirriborro bati erantzunez, idatzi zuen:

...barne-ikerketa bakarrik aski ez dela garbi erakusten du guk guztiok arazoak edukitzeak, blokeo eta frustrazioak esperimentatzeak, eta desegokitasun intelektual/esperimentalez oharturik egoteak. Batzuetan hau informaziorik ezagatik gertatuko da: nik ez badakit zure telefono-zenbakirik, ezin dizut deitu, eta barne-ikerketa hutsak ez du zenbaki hori aurkituko. Honelakoetan beharrezkoa da pertsonaz kanpotik "input" objektiboa sartzea. ("Input" hau nola lortuko den, bestelako arazoa da...)

Goiko gogoeta horietako gehienak trebatzaileak trebatzeko bi asteko Pilgrims ikastaro baten lehen astearen ondoren egindakoak dira, 1989ko udan. Lehen astearen bukaera aldera, partaideak haserre samar zeuden, behar hainbat input hartzen ari ez zirela iruditzen zitzaielako. Irakasleak behar bezain sentibera izan ziren adierazitako behar honi erantzuteko, eta zuzeneko input-ekitaldi gehiago eman zieten, oso bestelakoak aurreko "barne-ikerketa"zko ekitaldien aldean. Ai ene, beste partaide batzuk ez zeuden hain pozik input-ekitaldiokin, beren sentipen eta ezagupenak ez zirela erabiltzen iruditzen baitzitzaien. Halaz guztiz, hauek ere behar

izan zituzten input-ekitaldiak lehen asteko “prozesua” zeri buruzkoa izan zen konturatzeko.¹

Barne-ikerketaren balioa agian ondorengo sineskizun honetan deskribatzen da ongien: edozein irakas-egoeratan aldaketa/ikaskuntza bultzatzeko materialik dinamikoa partaideak dira, hauen sentipen eta ezagutza, eta elkarren arteko interakzioa. Ikuspegi honetatik, gidatzailearen zeregina barne-ikerketa baliotsua eragingo duten interakziozko egoerak sortzea da, eta hau inplikaturiko guztientzat input ulergarri bihurtzea. Irakasleak inputaren beharra ikusten duenean, partaideen ezagutzaren marko barruan eman dezake. (Ohartu hau bat datorrela Carrel eta Eisterhold-en eskema-teoriarekin ere - ikus Bibliog. 4.)

Nere hipotesia momentuz hau izango litzateke: lehenik, partaideek “ezagutzen dutena” atzitu edo atera; gero, hori bera input gisa erabili era ezberdinetan; eta ondoren, ezagun den horretan informazio berria sartu, prozesaketan ahalik eta egokitasun eta sakontasun gehien lortzeko.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharrak

* Ingelesez “Insearch”, *The Teacher Trainer* (5. bol., 1. zenb., 1991ko udaberria) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

1 Hau guztia, noski, gertatu zenari buruzko nire inpresio subjektiboa da; eta, agian, ez zituzten partaide guztiek gauzak era berdinean ikusiko, eta gidatzaileek ere oso helburu ezberdinak izango zituzten beharbada. Ni sarritan harritu izan naute partaideek nire ekitaldietatik ikasi dituzten gauzak kontatu dituztenean; izan ere, niri burutik pasatu ere egin gabeak ziren. Baina hauxe da barne-ikerketaren indarra eta magia.

2 Duela gutxi “Tessa Loop” berria probatu dut barne-ikerketarekin zenbait tailerretan. Sartu eta besterik gabe “Barne-ikerketa” idazten dut arbelean eta minutu batzuk ematen dizkiet banaka brain-storm edo idei jasa egin dezaten zer den esateko. Honela barne-ikerketa egiten dute

barne-ikerketa zer izan litekeen esateko. Gero bikoteka konparatzen dute eta honek klaseko azterketara eramaten gaitu. Talde batean partaideek berek ideia osoa zertu zuten funtsean, eta nik adostasuna azalduz bakarrik lagundu nien. Ideiak berak irakasten du, berari buruz gogoeta egiten denean.

Bibliografia

- 1 Woodward, T. 1988. *Loop Input*. Pilgrims Publications. Eta *Zutabe* 27: 21-27.
- 2 Rivers, Wilga. 1976. *Speaking in Many Tongues. Essays in Foreign-Language Teaching*. Rowley, Mass: Newbury House Publishers.
- 3 Bach, Richard. 1987. *Illusions*. Pan Books.
- 4 Carrel, P.L. eta Eisterhold, J.C. 1983. Schema theory and ESL reading pedagogy. *TESOL Quarterly* 17/4: 553-573.